

IMQ Errenta

**Eguneko Errenta aseguruua
ospitaleratze egoeretan eta kalte-
ordaina kirurgia-operazioagatik**

Baldintza Orokorrak

2024ko EREDUA



IMQ Errenta

Eguneko Errenta aseguru
ospitaleratze egoeretan eta kalte-
ordaina kirurgia-operazioagatik

Baldintza Orokorrak

2024ko EREDUA



Osasun Plangintzako Zuzendaritza Nagusian erregistratua 230 zenbakiarekin. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko Entitate Aseguratzailen Erregistro Berezian inskribatua 1960ko apirilaren 28ko MA betez (1980ko maiatzaren 21eko BOE). Legeak ezartzen dituen gordailuak eraturik. Erreserba osoa Espainian.

Aurkibidea

Eguneko Errenta aseguru ospitaleratze egoeretan eta kalte-ordaina kirurgia-operazioagatik

1. Artikulua	Atariko Klausula	5
2. Artikulua	Definizioak	5
3. Artikulua	Kontratuaren Oinarriak	9
4. Artikulua	Aseguruaren Xedea	9
5. Artikulua	Aseguratu ezin diren pertsonak	10
6. Artikulua	Estalduraren deskribapena	10
7. Artikulua	Baztertutako arriskuak	10
8. Artikulua	Kalte-ordainen zenbatekoa	12
9. Artikulua	Gabezia Aldiak	12
10. Artikulua	Lurralde-eremua	13
11. Artikulua	Primaren Ordainketa	13
12. Artikulua	Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko eguneratzea	14
13. Artikulua	Ezbeharrak: Jakinarazpena, efektua eta kalte-ordaina	15
14. Artikulua	Aseguruaren Hartzailearen eta/edo Aseguratuaren betebeharrak, eginkizunak eta ahalmenak	16
15. Artikulua	Aseguratzailerearen bestelako betebeharrak	19
16. Artikulua	Aseguruaren Iraupena	19
17. Artikulua	Polizaren Eztabaida ezintasuna	20
18. Artikulua	Datu Babesa	20
19. Artikulua	Erreklamazio-eskariak eta Kontrola Bezeroarentzako Arreta Saila	23
20. Artikulua	Eskumena	25
21. Artikulua	Preskripzioa	25
22. Artikulua	Jakinarazpenak	25
23. Artikulua	Urruneko kontratazioa	25
24. Artikulua	Kalte-ordaina kirurgia-operazioagatik	26

IMQ Errenta

Ospitaleratzeagatiko eguneko errenta eta ebakuntza kirurgikoagatiko kalte ordaina

Kontratazioa Baldintza Partikularretan jaso behar da

1. Artikulua

Atariko Klausula

1. IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROSek egiten duen jarduera aseguratzailea Espainiako Estatuaren kontrolpean dago. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren menpe dagoen Aseguru eta Pentsio-Fondoan Zuzendaritza Nagusia arduratzen da aipatutako entitatearen kontrola egiteaz.
2. Kontratu hau honako hauek arautzen dute: Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legean xedatutakoak (urriaren 17ko BOE); uztailearen 14ko 20/2015 Legeak, Erakunde Aseguratzaile eta Berraseguratzzaileen Antolamendu, Ikuskatze eta Kaudimenari buruzkoak; eta azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, Erakunde Aseguratzaile eta Berraseguratzzaileen ikuskatze eta kaudimenari buruzkoak; eta kontratu honi batzen zaizkion Baldintza Orokorretan, Partikularretan eta Berezetian hitzartzen denak; eta ez dute baliorik izango Aseguruaren Hartzailearen eta Aseguratuaren eskubideak mugatzen dituzten klausulak aipatutako Aseguratuek beren beregi idatziz onartzen ez badituzte. Aipatutako onarpen horren premiarik ez dute izango legezko aginduen edo aginduzko araudien transkripzioek edo erreferentziak.
3. Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 3. Artikuluan xedatutakoa aplikatuz, letra beltzez nabarmentzen dira Baldintza Orokor hauetan agertzen diren eta Aseguratuaren eskubideak mugatzen dituzten klausulak. Halaber, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, modu argi eta ulergarrian deskribatzen dira kontratuan emandako bermeak eta estaldurak, hala nola horietako bakoitzari dagokionean, horiei eragiten dieten kanporatzeak eta mugak, tipografikoki bereizirik.

2. Artikulua

Definizioak

IMQ Errenta Kontratuaren ondorioetarako definizio hauek ematen dira:

Istripua

Kontratua indarrean dagoen bitartean, Aseguratuaren asmorik gabeko gertaera bortitz, bat-bateko, ustekabeko eta kanpoko batek eragindako gorputzeko lesioa.

Urte naturala

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldia.

Aseguratua

Asegurua ezartzen zaion/zaien eta, Hartzailearen faltan, Kontratutik eratorritako betebeharrak beregan hartzen dituen/dituzten pertsona fisiko edo fisikoak.

Aseguratzailea

Kontratuaren bidez itunduriko arriskua bere gain hartzen duen pertsona juridikoa. Poliza honetan Igualatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reaseguros, aurrerantzean Aseguratzailea.

Zerbitzuen katalogoa edo Koadro Medikoa

Osasun arloko profesionalen eta establezimenduen zerrenda editatua, bai Aseguratzaileren propioak zein hitzartuak, helbidea, telefonoa eta ordutegia adierazita. Aseguru honen ondorioetarako Aseguratzaileren koadro medikotzat hartzen dira, bai zuzenean lan egiten duen tokian bai beste aseguru etxe batzuekin egindako hitzarmenen bidez egiten duenetan. Zerbitzuen Katalogo bakoitzean, probintziako osasun profesionalen eta establezimenduen zerrendaz gain, estatu osoko Aseguratuentzako informazio zerbitzuak eta arretarako telefonoak ere azaltzen dira.

Baldintza Partikularrak

Aseguratzatzen den arriskuaren alderdiak zehazten eta xeheki azaltzen dituen dokumentua, Poliza osatzen duena.

Osasun Galdetegia

Hartzaileak eta/edo Aseguratuak Poliza egin aurretik egin eta sinatutako aitorea eta Aseguratzailerekin Aseguruaren xedea den arriskua baloratzeko baliatuko duena.

Primaren Sortzapena

Prima eratzen duen kopuruaren osotasunak Hartzaile Aseguratzaileren zordun bihurtzen duen unea da. Lehenengo Prima Asegurua kontratatzen den unean sortzen da. Bigarren Prima eta Hurrengoak, Aseguruaren Kontratua tazituki edo berariaz luzatzen den urtealdi bakoitzaren hasieran sortzen dira.

Gaixotasuna

Istripu batek eragindakoak ez diren eta Asegurudunaren osasunean ematen diren aldaketa mota guztiak, medikuak diagnostikatuak, osasun asistentzia behar dutenak eta lehen agerpenak Kontratua indarrean dagoela izan dituztenak.

Sortzetiko gaixotasuna, lesioa, akatsa edo malformazioa

Jaiotzeko unean dagoen hori da, bai herentziako faktoreen ondorioz bai haurdunaldian zehar jaiotza unera arte hartutako eritasunen ondorioz. Sortzetiko eritasuna jaiotze unean bertan agertu eta aitortu daiteke edo beranduago, Aseguratuaren bizitzako edozein unetan, aurkitu daiteke.

Aurretik dagoen gaixotasuna

Aseguruaren kontratazio data baino lehen edo Polizan alta eman aurretik Aseguratuak jasaten duen hori da.

Primaren Ordainketaren Zatikapena

Aseguratzaileren eta Hartzailearen artean, azken honen onuran, Baldintza Partikularretan jar daitekeen ordainketa erraztasuna da; horri esker, prima osoaren edo zati baten ordainketa sortzapen unea baino beranduago ordaindu daiteke. Primaren ordainketa zatitzeko ahalbideak ez du, inola ere, Prima zatigarria denik esan nahi.

Frankizia

Frankizia egun kopuruari dagokio, ezbeharraren egunetik zenbatzen hasita Aseguratzailerekin kalte-ordainik eman behar ez duen epealdia.

Ospitalea

Gaixotasunak edo gorputz lesioak tratatzeko baimen legala duten eta, modu ambulatorioan zein ospitaleratze bidez, diagnostikoak eta kirurgia-operazioak egiteko baliabideak dituzten establezimendu publiko edo pribatu guztiak. Establezimendu horietan mediku bat egongo da arreta emateko eguneko 24 orduetan, eta gaixoen edo lesionatuen ospitaleratzea bakarrik onartuko da.

Polizaren ondorioetarako, ez dira ospitaletzat hartzen hotelak, atsedenekuak edo eriondo etxeak, bainuetxeak, babes-etxeak, bereziki gaixotasun kronikoak tratatzen dituzten instalazioak, alkoholismoa edo beste droga-mendekotasun mota batzuk tratatzen eta/edo desohitzen dituztenak, eta antzeko erakundeak.

Ospitaleratzea

- Ospitaleratze Orokorra. Pertsona bat ospitale batean gaixo bezala erregistratua agertzea eta gaua pasatzea edo bertan otordu nagusietariko bat egitea.
- Eguneko Ospitalea. Pertsona bat gaixo bezala erregistratua agertzea berariaz horrela izendatutako ospitaleko unitateetan, medikoak zein kirurgikoak edo psikiatrikoak, bertan tratamendu jakin bat jasotzeko edo anesthesiaren eraginpean egon izanagatik, gaua bertan pasatu gabe, otordu nagusietariko bat unitatean eginez edo egin gabe.

Kalte-ordaina

Aseguratzailerak Aseguratuari jasandako oinaze edo kalteagatik egindako ordainketa.

Kirurgia-ebakuntza

Helburu diagnostikoak edo terapeutikoak dituen edozein ebakuntza, ebakiz zein barneko esku hartzerako beste modu batez, zirujau batek baimendutako zentro batean egindakoa (ospitalea edo ospitaletik kanpo), eta normalean ebakuntza gelaren erabilera eskatzen duena.

Material ortopedikoa

Gorputzeko itxuragabetasunak prebenitu edo zuzentzeko erabilitako pieza anatomikoak edo edozein izaeratako elementuak.

Osteosintesi materiala

Protesi mota, apurtutako hezuraren muturrak lotzeko edo artikulazio-muturrak soldatzeko pieza edo elementu metalikoez zein beste edozein motatako osatua.

Medikua

Medikuntzan aritzeko legez gaiturik dagoen Medikuntzan Lizentziatua.

Mediku Espezialista edo Espezialista

Legez aitortutako espezialitate medikoren batean bere profesioan jarduteko beharrezko titulazioa duen Medikua.

Gabezia Aldia

Polizaren bermeen baitan sarturik dauden estalduretariko batzuk eragingarriak ez diren denboraldia. Denboraldi hau hilabetetan zenbatzen da Poliza indarrean sartzen denetik eta bertan Aseguratutako pertsona bakoitzarentzat.

Eztabaidagarritasun Aldia

Poliza indarrean sartu denetik, bertan Aseguratu pertsona bakoitzarentzat zenbatutako denbora tarteak, zeinetan Aseguratzailerak prestazioen estaldurari uko egin diezaiokeen edo Kontratua ihardets dezakeen, Aseguratuak gaixotasunak aurretik izan eta Osasunari buruzko Galdetegian aitortu ez dituela argudiatuta. Hartzaileak eta/edo Aseguratuak doloz jokatu baldin badu, Aseguratzailerak ahalmen hori izango du epealdi hori igarota ere.

Poliza

Aseguruaren Kontratua arautzen duten klausulak eta itunak dituen dokumentua. Polizaren parte osagarriak eta banaezinak dira honako hauek: Baldintza Orokorrak, arriskua bereizten

duten Partikularrak, Bereziak, baldin baleude, eta berau osatzeko edo aldatzeko jartzen zaizkion Osagarriak edo Gehigarriak.

Prestazioa

Kontratua indarrean dagoen bitartean estalduraren xede den ezbeharra gertatzetik eratorritako osasun asistentziaren kostua bereganatzean datza.

Prima

Aseguruaren prezioa. Prima bakarra, urtekoa eta alde zurretik ordaintzekoa da. Hala ere, zatika ordaintzea itundu ahal izango da, baina honek ez du, kasu batean ere, duen izaera banaezina eta urtekoa zatitu egiten denik esan nahi.

Lehenengo Prima da Asegurua kontratatzen deneko data eta hasieran aurreikusitako indarreko epearen amaieraren artean dagoen aseguru aldiari dagokiona, kalterik egin gabe kontratu egile bien arteko adostasunaz egindako luzapenei, isilpekoak zein berariazkoak. Arau orokor bezala, Aseguruaren kontratazio datatik urte bereko abenduaren 31ra arte Aseguratzailerak ematen dion arrisku estalduragatik Polizaren Hartzaileak egiten duen kontraprestazioa izango da Lehenengo Prima.

Bigarren Prima eta Hurrengoak, isilpeko edo berariazko luzapenen ondorioz Aseguruaren Kontratua indarrean jarraitzen duen aseguraturako bigarren urtealdiari eta hurrengo urtealdiei dagozkienak dira.

Ordainagirian, primari dagokion zatiaz gain, Hartzaileak jasan beharreko araututako karga eta zergak jasoko dira.

Prima urtero eguneratua izan daiteke Baldintza Orokortetako 12. artikuluan ezarritakoaren arabera: "Polizaren Baldintza Ekonomikoen Urteko Eguneratzea".

Protesia

Lesionaturako organo, aparatu edo sistema baten gabezia (osoa edo zati batena), hala nola horren funtzio fisiologikoa denboraldi batean edo iraunkorki ordeztzeko erabiltzen diren edozein izaeratako elementu guztiak.

Ezbeharra

Polizak osorik edo zati batean estaltzen dituen osasun zerbitzuak erabiltzea beharrezko egiten duten ondorioak dituen gertaera.

Aseguraturako kopurua

Baldintza Partikularretan jasota dauden berमतutako estalduren araberako kalte-ordainen urteko gehieneko kopurua da eta Aseguratzailerak ezbeharra gertatuz gero, ordaindu behar du.

Aseguruaren Hartzailea

Aseguratzailerarekin batera Kontratu hau sinatu eta bertan ezartzen diren betebeharrak, duten izaeragatik berak bete behar dituenak izan ezik, bere gain hartzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.

Larrialdia

Bere osasunean kalte konponezina eman ez dadin, bat-bateko izaera duen asistentzia medikoa beharrezko egiten duen Asegurudunaren egoera.

Hil ala biziko larrialdia

Pertsona baten bizitza hurreko arriskuan jartzen duen eta berehalako jarduera medikoa behar duen egoera oro.

3. Artikulua Kontratuaren Oinarriak

Kontratu hau Aseguruaren Hartzaileak eta/edo Aseguratuak Aseguruaren Eskarian eta bere osasun egoerari buruzko Osasun Galdetegian egindako adierazpenetan oinarritzen da. Aipatutako adierazpenak Aseguratzailerak Kontratu honen arriskua onartzeko oinarria osatzen dute eta osotasun bakar bat eratzen dute.

Ondorioz, kontratatzeke baldintzak honakoak dira: Aseguratuak bere kontura onartzea alde z aurreko azterketa medikoa eta/edo Aseguratzailerak ezarritako Osasun Galdetegia-Aitorpena betetzea. Edonola ere, Aseguratzailerak berarentzat gordetzen du kontratatzeke askatasuna.

Poliza honen bermeak Aseguratuak hirurogeita sei (66) urte betetzen dituen urteko abenduaren 31ra arte kontratatu ahal izango dira.

Aseguratzailerak Hartzaileari Poliza emango dio. Poliza hori osatzen dute Baldintza Orokorrek, Partikularrek eta Bereziek, baleude.

4. Artikulua Aseguruaren Xedea

Polizak ezartzen dituen mugen eta baldintzen barruan, eta kasuan kasu dagozkion Primak ordainduta, Aseguratzailerak Aseguratuari kontratatutako kalte-ordainketak bermatzen dizkio, Aseguratuak gaixotasun edo istripu baten ondorioz, Osasun-zentro batean epealdi baterako ospitaleratzea edo kirurgia-operazioa behar duenean.

Aseguru honen efektuetarako, kontsideratuko dira:

- a) Ospitaleratzea: Pertsona bat gaixo bezala, hogeita lau ordu baino gehiagoz (24), erregistratua agertzea ospitale batean eta gaua bertan igarotzea ospitaleko ohea erabiliz.
- b) Kirurgia-operazioa: Klinika batean hogeita lau ordu (24) baino gehiagoko barneratzea eskatzen duen ekintza denean eta mediku profesional baten esku-hartzerako ebakuntza gelaren erabilera beharrezkoa denean.
- c) Gertakizun beragatik kirurgia-operazio bat baino gehiago egiten bada, kalte-ordaina operazio garrantzitsuenagatik jasoko da.
- d) Operaziotik hogeita lau ordu (24) igarota, operazio berri baten beharra balego, jatorri berekoak izan arren, operazio berritzat hartuko da kalte-ordainei dagokienez.
- e) Egonaldiko egunen kopurua Aseguratuak ospitaleratuta emandako gauak zenbatuz zehaztuko da.

5. Artikulua

Aseguratu ezin diren pertsonak

Ezin dira aseguratu, eta ondorioz ez dute Aseguru estaldurarik izango, honako egoera hauetan dauden pertsonak:

- a) Urte hasieran hamahiru (13) urte edo gutxiago dituzten pertsonak.
- b) Urte hasieran hirurogeita hamaika (71) urte edo gehiago dituzten pertsonak.
- c) Edozein lanbide edo ekintza burutzeko baliaezintasun iraunkor absolutua duten pertsonak.
- d) Erabateko itsutasuna, gortasuna, paralisia, epilepsia, eritasun mentala, alkoholismoa, entzefalitis letargikoa, apoplexia-atakea edo delirium tremensa jasan izana, edo orokorrean, bizimodu arrunta egitea oztopatzen duen edozein lesio edo gaixotasun kroniko edo elbarritasun psikiko edo fisikoa duten pertsonak.
- e) Gaixotasun mental edo nerbio-gaixotasunerako tratamenduan daudenak.

Urtea amaitzean bermeak eten egingo dira, baldin eta Aseguratuak hirurogeita hamaika (71) urte betetzen baditu, eta Baldintza Partikularretan edo Berezietan kontrakoa adierazten ez bada. Eragin bera izango du kontratua indarrean dagoen bitartean c) eta d) ataletan jasotako kasuetako bat gertatzen denean, betiere, Polizak estalitako arrisku baten ondorio ez badira.

6. Artikulua

Estalduaren deskribapena

Poliza honekin hurrengo estaldurak kontratatu ahalko dira:

- a) Mediku edo zirujauak Aseguratuari aginduta, **ospitaleratutako lau (4) egun igarota**, hau da, bosgarren (5.) egunetik aurrera, jarraian, **egun bakoitzeko kopuru bat** ordainduko zaio. Estaldurak urte natural bakoitzeko ehun eta laurogei (180) ospitaleratze-eguneko muga du.

Prima arruntaz gain, dagokion gain prima ordainketa eginez, estaldura zabaldu eta ospitaleratzea lehenengo egunetik ordainduko da.

- b) **Kirurgia-operazioagatik emango den kalte-ordainaren** kopurua Polizaren Eranskinean jasotako kirurgia-operazioen Baremoaren arabera izango da eta urteko gehieneko muga bat izango du.

7. Artikulua

Baztertutako arriskuak

Aseguruaren estalduratik kanpo geratzen dira hurrengo egoeraren baten ondorioz gertatutako gaixotasun edo istripuen eraginez gertatutako kalteak:

1. Zigor Kodean jasotako lege-hausteagatik eragindakoak.
2. Asegurudunaren fede gaizto edo zabarkeriagatik eragindakoak.
3. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estali beharreko aparteko gertaerek eragindakoak.
4. Kirol profesionalean, edozein dela ere, aritzeagatik eragindakoak edo zaletu gisa kirol lehiaketatan, orokorrean, parte hartzeagatik, eta bereziki hurrengo jarduerak: aireko jarduerak, boxeo, borroka-arteak, eskalada, espeleologia, urpekaritza, motordun ibilgailuen lasterketak, errugbi, hipika, zezenketak eta ganadu suharren entzierroak.
5. Alkoholismo kronikoak, droga edo edozein motatako psikofarmakoen mendekotasunak, mozkorkeria jasandako kalteak, liskarrak (defentsa pertsonalean izan ezik), autolesioak edo suizidio saiakerek eragindakoak.
6. Antzutasun edo ernalezintasun tratamenduek eragindakoak, edo borondatez egindako diagnostiko, tratamendu edo kirurgia-operazioetatik eratorritakoak, gaixotasun edo istripu batek eragindakoak ez diren kasuetan, edo xede estetiko edo kosmetikoekin burututakoak direnean.
7. Erditzen normalak, erdiondoko edo/eta edoskitzetik eratorritakoak.
8. Diagnostikoaren, operazioaren, infiltrazioen eta tratamenduaren, edo bestelako jardueren xedea estetiko edo kosmetiko baina ez denean. Era berean, xede estetiko duten ile-tratamenduak ere kanpo geratzen dira.
9. Bainuetxeetan eta antzerako Zentroetako egonaldiek sortutako gastuak eta sendaketarako edo mehartze-atsekenaldiak fakultatiboak agindutakoak izan arren.
10. Gatazka ezberdinek eragindakoak: gerra zibilak, nazioartekoak edo kolonialak, inbasioak, asaldaketak, iraultzak, matxinadak, altxamenduak, errepresioak, ekintza terroristak eta maniobra militarrek, bake garaian egindakoak izan arren; erreakzio nuklearrek zuzenean edo zeharka eragindakoak edo kutsadura erradiaktiboak, hala nola, lurrikaretatik eratorritakoak, uholdeak, sumendi-erupzioak eta bestelako fenomeno sismiko edo meteorologikoak eta ofizialki aitortutako epidemiek eragindakoak.
11. Lehendik pairatutako edozein gaixotasunek eragindakoak, aurrez izandako akats edo sortzetiko itxuragabetasunak; Aseguruduna Polizan sartu baino lehenago gertatutako istripu edo gaixotasunetatik eratorritakoak, hala nola, Aseguru Hartzaileak edo Asegurudunak ezagutu arren aitortu ez dituen egoeretatik etorritakoak.

Aseguru hartzaileak, bere izenean eta Asegurudunaren izenean, aurretik egiten den mediku azterketaren emaitzak edonolakoak direla ere, derrigorrez aitortu behar du Aseguru Eskuera sinatzerako momentuan, Aseguruan sartutako edozeinek pairatzen dituen edo pairatu dituen lesio edo gaixotasunak zeintzuk diren edo izan diren, bereziki errepikakorrek, sortzetikoak edo azterketa, froga diagnostiko edo edozein tratamendu mota behar izan badu; edo sinatzeko momentuan patologia baten hasiera izan litekeen sintomaren bat nabaritutako balu.

Aseguratzailerak eskatzailea edo eskatzaileak onartu edo baztertzeko eskubidea izango du eta, onartzekotan, Polizaren Baldintza Partikularretan kanporatze klausula gehitu

ahal izango du aurretik aipatu gaixotasun, lesio, akats edo itxuragabetasunak edo sortzetikoen kasuan.

12. Jatorri psikiatriko edo psikologikodun prozesuetan, hala nola neurologiak, estresak edo oinazea baino eragiten ez duten prozesuetan, mediku diagnostiko frogekin erakutsi ezin den arrazoiko kasuetan.

13. Asistentzia medikoa edo ospitaleratzeak gizarte arrazoiengatik direnean; esaterako, famili arazoan eraginez sortutakoak, arrastoak edo egoera konponezinetatik eratorritakoak.

8. Artikulua

Kalte-ordainen zenbatekoa

Estaldurak hiru (3) kalte-ordain mota zehazten ditu, Aseguratuarentzat hautazkoak eta prima proportzionalarekin:

ESTALDURAK	ASEGURATUTAKO ZENBATEKOA		
	I Taldea	II Taldea	III Taldea
Ospitaleratze-egun bakoitzeko kopurua	30,05 €	60,10 €	120,20 €
Kirurgia-operazioagatik emango den kalte-ordainaren gehieneko kopurua	1.803,04 €	3.606,07 €	7.212,15 €

Kalte-ordain handiagoa jaso ahal izateko taldez aldatu nahi badu, Aseguratuak, gutxienez urtebetez, aurreko taldean egon beharko du, indarrean dagoen aseguruaren aldia bukatu baino hogeita hamar (30) egun lehenago eskatu beharko du eta Osasun-Galdetegia osatu beharko du. Ordaindu beharreko prima kontratatutako kalte-ordain berriei dagokiona izango da.

9. Artikulua

Gabezia Aldiak

Kontratututako estaldura guztiak jarraian jasotako Gabezia Aldiak dituzte:

a) hiru (3) hilabetekoa, gaixotasun edo kirurgia-operazioetan.

Erbeharra istripu baten ondorioz gertatzen denean, gabezia aldia ezeztatuta geratzen da eta Kontratuaren efektua Poliza egiten den unean bertan indarrean sartzen da.

b) hamabi (12) hilabetekoa, kirurgia-operazioa erditze distozikoa edo edoskitzeagatik denean.

Kasu zehatzetan, Osasun-Galdetegian jasotakoaren ondorioz, Gabezia Aldi ezberdinak edo dagokion bazterteak ezarri ahalko dira.

Gabezia Aldiak eta/edo bazterteak, banan-banan ezarriko zaizkio Aseguratu bakoitzari.

10. Artikulua

Lurralde-eremua

Poliza honetan bermatutako estaldurak munduko edozein ospitaletan gertatutako ezbeharrak jasotzen ditu.

11. Artikulua

Primaren Ordainketa

Aseguru Hartzaileak, Aseguru-Kontratuen Legean jasotako 14. Artikuluekin bat etorriz, Prima ordaintzera derrigortuta dago, Baldintza Partikularretan aurreikusitako modu eta egunean.

a) Primaren izaera banaezina eta urtekoa

Prima bakarra da, urtekoa eta alde zurratik ordaintzekoa, lehenengo epealdi aktuarialaren hasieran oso-osorik sortzen da; edo, egongo balira, luzapen bakoitzaren hasieran.

Hala ere, Baldintza Partikularretan eta Hartzailearen mesedetan, bere ordainketa zatitua itundu ahal izango da, Aseguratzailerak osorik kobratzeko daukan eskubideari kalterik egin gabe. Zatiketa hori ordainketa errazteko da, baina ez dio, inola ere, urteko Primaren batasunari eta banaezintasunari kalterik egiten.

b) Lehenengo Prima

Lehenengo Prima edo berorren zati bat Kontratua sinatzen den unean sortuko da eta, une horretatik aurrera, osorik eskatu ahal izango da Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 15. Artikuluekin bat etorriz. Hartzailearen erruz ordainduko ez balitz, Aseguratzailerak Kontratua suntsiarazteko eskubidea izango du edo, Polizan oinarrituta, bide betearazlean Prima ordaintzeko eskatzeko. Edonola ere, Prima ezbeharrak gertatu baino lehen ordainduta egon ez balitz, Aseguratzailerak bere betebeharetatik aske geratuko da, kontrako ituna dagoenean izan ezik.

c) Bigarren Prima eta Hurrengoak

Bigarren Prima edo Hurrengoak zein horren frakzioak ordaintzen ez badira, estaldura etenda geratuko da ordaindu gabeko lehenengo ordainagiriaren mugaegunetik hilabetera (1) (edo ordainagiri bakarretik hilabetera, ordainketaren zatiketa itundu ez den kasuan) eta Aseguratzailerak aipatutako mugaegunetik sei (6) hilabeteko epean ordaintzeko eskatzen ez badu, Kontratua iraungita dela ulertuko da. Hala ere, Kontratua iraungita dagoenean Aseguratzailerak uneko Primaren ordainketa eskatzeko eskubidea baino ez du izango.

Kontratua aurreko baldintzen arabera konponduko edo iraungiko ez balitz, estaldurak efektua izango du berriz ere Hartzaileak zor dituen ordainagiriak ordaindu eta hurrengo hogeita lau (24) orduetara.

d) Ordainagiriaren librantza eta helbideratzea

Aseguratzailea legez baimenduriko bere ordezkariak libratutako ordainagiriaren indarrez bakarrik dago behartuta. Aseguru honen Prima ordainagiriak berak igorriko ditu.

Ordainagiriak, gainera, legez aplikatu beharreko gainkargak, tasak eta zergak ere izango ditu.

Baldintza Partikularretan itundu ahal izango da Prima ordainagiriak Bankuetan, Aurrezki Kutxetan edo Kreditu Kooperatibetan irekitako kontuen bidez kobratzea.

Prima ordainagiriaren helbideratzea ituntzen bada, aipatutakoa zabaltzearen, hurrengo arauak ezartzen dira:

1. Hartzaileak helbideratze agindua agertzen den Bankuari edo Aurrezki Kutxari zuzendutako gutuna edo dokumentua emango dio Aseguratzaileari.
2. Ordainagiri bakoitza bere mugaegunean ulertuko da ordaindutat, kobratzerakoan Hartzaileak emandako kontuan nahikoa diru ez dagoenean izan ezik. Kasu honetan, Aseguratzaileak Hartzaileari jakinaraziko dio ordainagiria bere esku daukala eta honek Aseguratzailearen egoitzan ordaindu beharko du hamar (10) eguneko epean. Epe hori igarota, Primaren ordainagiriak ordaintzen ez diren kasuetarako aurreikusitako ondorioak gertatuko dira.
3. Poliza indarrean dagoen bitartean, Hartzaileak bere ordainagiriak helbideratzeko kontua edo finantza entitatea aldatu dezake, aldaketa horren berri aldeztetik emanez 1. atalean aurreikusitako moduan.

e) Hartzailearen erruz iraupen aldia bukatu baino lehen iraungitzen bada kontratua, kontsumitu ez den urteko Primaren zatia Aseguratzailearena izango da eta berorri zor zaio.

12. Artikulua

Polizaren Baldintza Ekonomikoen urteko eguneratzea

Aseguratzaileak ondoko hauek egin ahal izango ditu Polizaren urteroko berrikuntza bakoitzean:

- a) Primen zenbatekoa eguneratu.
- b) Estalduraren gehieneko mugari dagokion zenbatekoa eguneratu.

Aipatutako eguneratzeak gorabehera, berritze bakoitzean urteroko prima ezartzeko Aseguratu bakoitzaren adina hartuko da kontuan, eta Aseguratzaileak berritzeko datan indarrean duen primen tarifa aplikatuko da. Aseguruaren Hartzailea adostasuna adierazikoz du primen zenbatekoarekin, hori dela eta, izango diren aldaketekin.

Primen eguneratzea horiek kalkulu tekniko-aktuarialean oinarrituko dira, eta beharrezkoak dira hauen eskema finantzario-aktuarialean duen eragina zehazteko: aseguruarena, osasun zerbitzuen

kostuaren igoerarena, Polizak hartzen dituen prestazioen maiztasunaren igoerarena, bermatutako estalduran berrikuntza teknologikoak edo antzekoak sartzearena.

Prima hauek hurrengo urtekorako eguneratzeen jakinarazpena jasotzean Aseguruaren Hartzaileak bi aukera izango ditu: bata, Aseguru-Kontratua luzatzea, eta, ondorioz, baldintza ekonomiko berriak onartzea; bestea, kontratua bukatutzat ematea indarrean dagoen urteko mugaeguna amaitzen denean. Azken kasu horretan, sinesgarrio jakinarazi behar dio Aseguratzailari horretarako asmoa duela.

13. Artikulua

Ezbeharrak: Jakinarazpena, efektua eta kalte-ordaina

- a) Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzailari ezbeharrak gertatu dela jakinarazi beharko dio *ezbeharrak gertatu eta gehienez zazpi (7) eguneko epean*.

Nolanahi ere, Hartzaileak edo Aseguratuak ezbeharrari buruzko informazio guztia eta ondorioen gaineko argibide oro eman beharko dizkio Aseguratzailari, eta ezbeharraren ondorioak neurtzeko Aseguratzailak izendatutako medikuek eskatutako azterketa eta egiaztapenak burutu beharko ditu.

Era berean, Aseguratzailari aldizka, gehienez hamar (10) eguneko, eta ospitaleratze egoeraren alta jaso ezean, medikuaren egiaztatzea aurkeztu beharko dio Ospitaleko egonaldia egiaztatzeko.

Betebehar hauek hautsiz gero, Aseguratzailari ez jakinarazteak sortutako kalte-galerak eskatu ahalko ditu, beste medio baten bitartez ezbeharraren berri izan ezean. Jakinarazpen betebeharrak haustek, aldi horretan dolu edo erru larria gertatuz gero, kalte-ordaina jasotzeko eskubide galera ekarriko du.

- b) Kalte-ordaina jasotzeko, Hartzaileak edo Aseguratuak, *Aseguratzailari hurrengo egiaztatzeak helarazi beharko dizkio:*

1. Ospitaleko alta eta baja-agiriak.
2. Aseguratuari arreta eman dion Medikuen txosten xehatua, emandako tratamendua, ospitaleratze beharra eta egonaldien luzapena, balego, jasotzen dituenak.
3. Kirurgia-operazioa balego, ebakuntza egin duen Zirujauaren txosten-medikoa, operazioaren jatorria eta beharra argitzen dituenak.
4. Operazioa behar bezala neurtu eta egoera ezagutzeko Aseguratzailak eskatutako bidezkoak diren txostenak.

- c) Ezbeharrak neurtu eta bere ondorioak zehazteko beharrezko azterketa eta adituaren txostena amaituta, Aseguratzailak kalte-ordaina emateko betebeharrak izango du. Kirurgia-operazioen kasuan, Aseguratuari kalte-ordainaren kopurua idatziz adierazi beharko dio, operazioaren jatorriarekin bat etorriz eta Polizaren Baremoan jasotakoaren arabera.

Edonola ere, Aseguratzailak ezbeharraren berri duen unetik zenbatzen hasita, berrogei (40) eguneko epea izango du, ezagututako gertaeraren arabera, zor duen gutxieneko kopurua ordaintzeko.

- d) Aldeen artean adostasunik izan ezean, bakoitzak Mediku Peritu bat izendatuko du, eta hauen onarpena idatziz agertu beharko da.

Aldereren batek izendapenik egin ezean, izendapena egin duen aldeak eskaera egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, zortzi (8) eguneko epea izango du izendapena egiteko. Epe horretan burutu ezean, beste aldeko Perituak emango duen irizpena onartuko duela ulertuko da, eta honen ondorioetara lotuta geratuko da.

Perituak ados jarriz gero, kalte-ordainaren kopurua zehazteko erabiliko den egintza bateratua aurkeztuko da, ezbeharraren arrazoiak zehaztuz, kalteen balorazioa eginez eta bestelako egoerak argituz.

Perituek akordiorik lortzen ez badute, alde biek, adostasunez, hirugarren Peritu bat hautatuko dute, eta adostasunik izan ezean, izendapena lekuko Lehen Auzialdiko Epaileak egingo du, borondatezko jurisdikzioko egintzaren bitartez eta Perituen zozketarako Prozedura Zibilaren Legeak jasotako tramiteetan aurreikusitakoaren arabera.

Perituen irizpena, aho batez edo gehiengoarekin, aldeei berehala eta modu argian jakinaraziko zaie, eta erabakia loteslea izango da, Aseguru Kontratuen Legeak adierazitako baldintza eta epeetan egin ahal diren aurkaratzeak egon ezean.

Perituen irizpena aurkaratua izanez gero, Aseguratzailleak artikuluko bereko c) atalean jasotako gutxieneko kopurua ordaindu beharko du, eta aurkaratzerik egon ezean, Perituak adierazitako kalte-ordaina emateko bost (5) eguneko epea izango du.

- e) Aseguratzailleak ezarritako kalte-ordaina atzerapenarekin emategatik Aseguratuak eskaera judizialki bideratu behar duen kasuetan, ezarritako kalte-ordainari urteko % 20ko igoera kalkulatu beharko zaio, eta prozesuak Aseguratuari eragindako gastu guztiak Aseguratzailleak bere gain hartu beharko ditu.

14. Artikulua

Aseguruaren Hartzaillearen eta/edo Aseguratuaren betebeharrak, eginkizunak eta ahalmenak

1. Aseguruaren Hartzailleak eta, kasua denean, Aseguratuak, hurrengo betebeharrak dituzte:

- a) Aseguratzailleari aitortu, honek emandako Galdetegiaren arabera, berak ezagutzen dituen eta arriskua balioztatzean eragina izan dezaketen egoera guztiak. Betebehar horretatik salbuetsita geratuko da Aseguratzailleak Galdetegia egiteko eskatzen ez badio edo, nahiz eta eskatu, arriskua balioztatzean eragina izanik ere Galdetegian agertzen ez direnean.

Aseguratzailleak kontratua eteteko jakinarazpena bidaliko dio Aseguruaren Hartzailleari hilabeteko (1) epean, Aseguruaren Hartzailleak edo Aseguratuak zer edo zer ezkutatu duela edo okerreko daturik eman duela jakin duenetik zenbatzen hasita.

Aseguratzaillearen kontura dira, dolorik edo erru larririk izan ezean, aitorten hori egiten duen unean indarrean dagoen aldiari dagozkion Primak.

Ezbeharra Aseguratzaileak goiko paragrafoan aipatzen den adierazpena egin baino lehen gertatzen bada, honen prestazioa hitzartutako prima eta arriskuaren benetako izaera ezagutu izan balitz aplikatuko zitzaionaren arteko aldeari proportzionalki murriztuko zaio. Aseguruaren Hartzailerearen dolo edo erru larria balego, Aseguratzailea prestazioa bere gain hartzetik aske geratuko da.

- b) Aseguratzaileari jakinarazi, Kontratua indarrean dagoela eta lehenbailehen, aldez aurretik aurkeztutako Aseguratuaren Osasun-Galdetegian aitortutako faktoreak eta egoerak aldatu direla, eta arriskua larriagotzen dutela, beren izaeragatik Kontratua egiterako unean Aseguratzaileak ezagutu izan balitu ez litzatekeelako kontratua egingo edo baldintza gaitzetan egingo litzatekeelako. Hartzailereak edo Aseguratuak ez dute derrigorrean jakinarazi behar Hartzailerearen edo Aseguratuaren osasun egoerari buruzko baldintzak aldatu direla, inola ere ez baita arriskuaren larriagotzea bezala hartuko.

Aseguratzaileak Kontratua aldatzea proposa dezake, larriagotzearen berri eman zaion egunean zenbatzen hasi eta bi (2) hilabeteko epean. Kasu horretan, Hartzailereak proposamenaren berri izan duen egunean zenbatzen hasi eta hamabost (15) eguneko epea du proposamena onartu edo ezetz esateko. Ezetz esaten badu, edo Hartzailerearen erantzunik izan ezean, Aseguratzaileak, aipatutako epea igarotzen denean, Kontratua desegin dezake Hartzailereari horren berri alde aurretik emanda. Hartzailereak hamabost (15) eguneko epe berria izango du erantzuteko eta egun horiek igarota, hurrengo zortzi (8) egunen barruan, behin betiko desegitearen berri emango zaio.

Halaber, Aseguratzaileak Kontratua desegin dezake Aseguratuari idatziz hilabeteko (1) epean jakinarazita, betiere arriskua larriagoa dela jakin duen egunetik aurrera kontatzen hasita. Aseguruaren Hartzailereak edo Aseguratuak adierazpena egin aurretik ezbeharra gertatuko balitz, Aseguratzailea bere betebeharetatik aske geratzen da Hartzailereak edo Aseguratuak fede gaiztoz jokatu badu. Bestela, Aseguratzailearen prestazioa hitzartutako primaren eta arriskuaren benetako izaera ezagutu izan balitz aplikatuko litzatekeenaren arteko aldeari proportzionalki dagokionera murriztuko da.

- c) Aseguratzaileari helbide-aldaketaren berri lehenbailehen eman behar zaio.
- d) Aseguratzaileari Kontratu hau indarrean dagoen bitartean ematen diren Aseguratuen alta eta bajak lehenbailehen jakinarazi behar zaizkio.

Aseguratuen alta indarrean sartzen da Hartzailereak edo Aseguratuak egindako jakinarazpen edo adierazpen dataren hurrengo hilabeteko lehenengo egunean, hala egoera berrira egokituko den Primari dagokionez, nola estalduraren hasierari edo eteteari dagokionez.

Aginduzko Osasun-Galdetegiaren emaitzak ikusita, Aseguratzaileak onarpena ukatu edo bazterketak ezarri ditzake eta, edonola ere, Gabezia Aldi Orokorrak edo Partikularrak aplikatuko dira, egongo balira.

Kontratua indarrean dagoela jakinarazitako Aseguratuen bajek, edozein arrazoirengatik direla ere, Aseguratzaileari jakinarazten zaion unean izango dute eragina eta Aseguru Kontratuaren luzapena gertatzen bada sortzen diren Hurrengo Primak egoera berrira egokitzea ekarriko dute. Hala ere, Primaren banaezintasun printzipioari jarraiki, Aseguratuen bajek ez dute inolako ondoriorik izango jadanik sorturiko Primei dagokionez, nahiz eta Hartzailerearen mesedetan Baldintza Partikularretan ordainketa zatituta egin.

- e) Ezbeharraren ondorioak gutxitzea, susperraldi azkarra izateko bere eskura dauden baliabideak erabilita. Aseguratzaileari kalte egin edo engainatzeko asmo argiarekin eginbehar hori ez betetzeak, Aseguratzailea ezbeharretik eratorritako betebehar guztietatik askatuko du.
- f) Subrogazioa Aseguratzailearen alde eman eta erraztu, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 82. artikulua ezartzen duenaren arabera. Ondorioz, Aseguratzaileak, Kontratu honetatik sortzen zaizkion betebeharrak bete ondoren, ezbeharraren ondorioz Aseguratuari dagozkion eskubideak eta ekintzak egikaritu ahal izango ditu ezbeharraren ardura duten pertsonen aurrean asistentziaren gatuak berreskuratzeko helburuaz.

Aseguratzaileak ezingo ditu egikaritu Asegurudunaren kontra honek subrogatu dizkion eskubideak. Aseguruduna izango da, bere ekintzekin edo ez-egiteekin, Aseguratzaileari subrogatzeko eskubidean egin diezazkiokeen kalteen erantzule.

Aseguratzaileak ez du izango subrogatzeko eskubiderik Legearen arabera Aseguratuaren erantzukizunari sorrera eman dioten ekintzak edo ez-egiteak burutu dituzten pertsonen kontra, ez eta Aseguratuarekin bizi eta berarekin hirugarren odolkidetasun maila zibilaren barruko senide, ildo zuzenean edo albokoan, guraso hartzaile edo seme-alaba adoptatua den ezbehar egilearen kontra ere. Arau honek, ordea, ez du eraginik izango erantzukizuna dolutik badator edo erantzukizuna Aseguru Kontratu baten bidez babesturik badago. Azken balizko egoera horretan subrogazioa bere hedaduran mugaturik egongo da aipatutako Kontratuaren terminoen arabera.

Aseguratzailea eta Aseguratua hirugarren erantzule baten kontra bat badatoz, berreskuratutako kobrantza bien artean banatuko da bakoitzaren interesen proportzioan.

- g) Kontratu indarrean dagoen bitartean, Aseguratuak eskatutako agiri eta informazio mediko guztia erraztu beharko dio Aseguratzaileari, eskatzen dituen prestazioen estalduraren kostua balioztatze aldera. **Aseguratzaileak eskatu ondoren, estaldura emateko prozesua etena geratuko da informazio guztia jaso arte. Gerora, Aseguratuaren eskutik jasotako informazio medikoaren ondorioz, edozein prestazio desegokia dela agerian geratzen bada, Aseguratzaileak Aseguratuari prestazio horren estalduraren kostua eskatu ahal izango dio.**
- h) **Aseguratuak bermaturiko prestaziorako eskubidea galduko du:**
 1. Osasunari buruzko Galdetegia betetzean, informazioa gorde edo zehaztasunik ez badago, doloa edo erru larria egon bada.
 2. Arriskua larriagotzeko kasuan, Aseguruaren Hartzailak edo Aseguratuak Aseguratzaileari horren berri eman ez badio fede gaiztoz jokatu.
 3. Bermaturiko gertakizuna Prima edo, kasua denean, bere zatia ordaindu aurretik gertatu bada.
 4. Ezbeharra Aseguratuaren fede gaiztoagatik gertatu denean.
- i) Aseguruaren edozein dokumentu horretarako eskubiderik ez duen pertsonaren batek erabiltzeak, Aseguratzaileari erantzukizuna duen Aseguratua Polizatik kanpo uzteko ahalmena emango dio, dagozkion ekintza zibilei edo kriminaleri kalterik egin gabe.

2. Aseguruaren Hartzailak eta, kasua denean, Asegurudunak, hurrengo ahalmenak dituzte:

- a) Aseguruaren Hartzailleak edo Aseguratuak, Kontratua aribidean denean, arriskua murriztu eta beren izaeragatik Kontratua egiterako unean Aseguratzailleak ezagutu izan balitu, Kontratu hori baldintza hobea gautzeko aukera emango luketen egoera guztien berri eman ahal izango diote Aseguratzailari. Kasu horretan, Primak estalitako aribidean den aldia bukatzean, hurrengo primaren zenbatekoa dagokion proportzioan murriztu beharko da; horrela egingo ez balitz, Hartzaillearen eskubidea izango litzateke Kontratua bertan behera utzi eta jada ordaindutako primaren eta berez ordaindu beharko lukeenaren arteko aldea itzultzea, noiztik eta arriskua murriztu dela jakinarazi den unetik aurrera.
- b) Aseguruaren Hartzailleak Aseguratzailari eskatu ahal dio, Poliza jaso eta hilabeteko (1) epean, honen eta Aseguru Proposamenaren edo adostutako klausulen artean dauden ezberdintasunak konpontzeko Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera; erreklamaziorik egin gabe epe hori igarota, Polizan agertzen denarekin ados egongo da.

15. Artikulua

Aseguratzaillearen bestelako betebeharrak

- a) Kontratututako estaldura emateaz gain, Aseguratzailleak Aseguruaren Hartzailari emango dio Poliza edo, kasua bada, behin behineko estalduraren dokumentua edo Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokiona.
- b) Aseguratzailleak Hartzailari jakinarazi beharko dio, indarrean dagoen aldia bukatu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago, Aseguruaren Kontratuan egongo den edozein aldaketa.

16. Artikulua

Aseguruaren Iraupena

- a) Asegurua Baldintza Partikularretan aurreikusten den denboraldirako hitzartzen da, eta besterik ezarri ezean, kontratatu den urteko abenduaren 31n bukatzen den aldirako izango da.

Epemuga bukatuta, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 22. artikuluekin bat etorritik, urteko epeetan luzatzen joango da isilbidez. Dena den, bi aldeetako edozeinek uka dezake luzapena beste aldeari idatzizko jakinarazpena bidaliz, aribidean den Kontratuaren aldia amaitu baino hilabete (1) lehenago gutxienez, Hartzailleak luzapenik nahi ez duenean, eta gutxienez bi (2) hilabete lehenago Aseguratzailleak nahi ez duenean. Hartzaillearen jakinarazpena Aseguratzailari egin behar zaio. Jakinarazpena hemen ezarritako moduan egiten bada, kontratua Baldintza Partikularretan hitzartutako epean edota urteko luzapen aldia bukatutakoan agortuko da, kasuaren arabera.

Aseguratu ospitaleratua balego, Aseguratzailleak Polizaren luzapenari uko eginez egindako jakinarazpenak ez du Aseguratu horrenaganako eraginik izango, ospitalean alta jasotzen duen egunera arte, salbu eta Aseguratuak tratamendua jasotzeari uko egiten badio.

- b) Kontratututako estaldurek ez dute eraginik izango Primaren lehenengo ordainagiria ordaintzen ez den bitartean.

17. Artikulua

Polizaren Eztabaida ezintasuna

Azterketa medikoa eginda balego edo eskubide osoak onartuak baleude, Poliza eztabaida ezintasuna izango da Aseguratuaren osasun egoerari dagokionez eta Aseguratuak ezin izango diren prestazioak Kontratuaren burutze dataren aurreko gaixotasunak daudela alegatuta, beren beregi eta aipatu azterketaren ondorio gisa, Polizaren Baldintza Partikularretan salbuespena egiten denean edo eritasuna edo afekzioa Asegurudunak Osasun Galdetegi-Aitorpenean engainuz ezkatutu duenean izan eziz.

Azterketa medikoa egin izan ez balitz eta eskubide osoak ere onartu izan ez balira, Poliza eztabaida ezintasuna izango da Kontratuaren indarrean sartu zenetik urtebete igaro denean, Hartzaiak edo Aseguratuak doloz jokatu duenean izan eziz.

18. Artikulua

Datu Babesa

Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betetz, Aseguru-Kontratuaren 50/1980 Legearekin eta gainerako lege aplikagarriekin bat, honakoa jakinarazten dizugu:

- 1) Tratamenduaren arduradunaren nortasuna eta harremanetarako datuak:** IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS, IFK zk. A-95321386 (aurrerantzean, "IMQ"). IMQrekin harremanetan jar zaitezke aurrez aurre edo postaz Bilboko helbidean (Bizkaia), Máximo Aguirre kalea 18 (bis), (PK 48011), edo emailaz: imq@imq.es.
- 2) IMQko Datuak Babesteko Ordezkararen (DBO) nortasuna eta harremanetarako datuak:** IMQko DBOrekin emailaz jar zaitezke harremanetan: dpd@imq.es
- 3) IMQ erabiltzen dituen datu pertsonalak:** IMQrekiko kontratu-harremana kontrolatu eta kudeatzeko beharrezkoak direnak eta, bereziki, identifikazio-datuak (izena, abizenak, sexua, egoera zibila, lanbidea, jarduera sektorea, gaitasuna, eta NAN), harremanetarako datuak (posta helbidea eta posta elektronikoa edo telefono zenbakia), fakturazio-datuak, osasunari buruzko datuak, genetikoak edo biometrikoak.
- 4) Datu pertsonalak zertarako erabiltzen diren:** IMQk datu pertsonalak erabiltzen ditu (i) legezko obligazioak betetzeko, (ii) IMQ eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako aseguru-produktu eta zerbitzuen berri emateko, eta (iii) bezeroek edo aseguratuak eskatutako eta/edo kontratatutako produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko, baita ere, dagozkion zerbitzuak fakturatzeko beharrezko diren datuak erabili eta kudeatzeko.

Hain zuzen ere, Aseguru-poliza kontratatzeak eskatzen du IMQk garatu, bete, kontrolatu eta betearazteko Hartzaiaren datuak erabili behar dituela, baita Aseguratuaren eta/edo onuradunaren datuak ere, bereziki babestutako datuak barne (hala nola, Asegurua kontratatzeak eskatutako osasunari buruzko datuak). Erabilera horren barruan dago zure datuak IMQren ardurapean dauden fitxategietan edo datu-baseetan sartzea. Horretarako, IMQk zure datu pertsonalak erabili ahal izango ditu Aseguru Kontratuaren formalizatu baino lehen ere edo kontratua, arrazoia edozein dela ere, bukatu bada.

Mediku edo osasun prestazioak eskatu edo egitearekin eta/edo Poliza berritzearekin, Hartzaiak (i) jakitun dago bere datuak eta berak adierazitako Aseguratuaren eta/edo

onuradunen datuak erabiliko direla, eta datu horiek nahiz kontratatutako Aseguru-poliza betearaztean sortutakoak partekatuko direla, hala badagokio, osasun-zerbitzuen emailleekin, hemen adierazitako baldintzei jarraituz kontratatu den Aseguru-polizarekin bat: eta (ii) adierazi eta bermatzen du Hartzailak IMQri jakinarazitako titular guztien datu pertsonalak (hau da, kontratatutako Aseguru-polizaren Aseguratuen eta/edo onuradunen datuak) erabiltzeko baimena duela, hemen adierazitako baldintzei jarraituz. Berariaz jakinarazi dizkie agiri honetan adierazitako datuak erabiltzeko buruzko edukia eta kontratatutako Aseguru polizaren edukia, eta konpromisoa hartzen du IMQri helarazteko, azken horrek hala eskatuta, atal honetan aipatzen diren Aseguratuen eta onuradunen idatzizko baimena (ii).

Jakinarazten dugu ez dela profil komertzialetan oinarritutako erabaki automatizaturik hartuko eta ez dela *scoring* edo tarifakazio jarduerarik egingo.

5) **Tratamenduaren oinarri juridikoa:**

- (i) Datuak erabiltzeko oinarri legitimoa da aseguru-kontratu batek, betearazi eta kontrola egitea, baita IMQrekin eskatutako edo kontratatutako produktuak eta zerbitzuak kudeatzea ere. Legeek ezarritako obligazioak ere bete behar ditu IMQk. Besteak beste: Aseguru Kontratuaren 50/1980 Legea; Aseguru- eta Berraseguru-entitateen Ordenamendua, Gainbegiratzea eta Kaudimena arautzen dituzten 20/2015 Legea eta 1060/2015 Errege Dekretua; aseguruak banatzeko buruzko 2016/97 Zuzentaraua (EB); eta indarrean dagoen datu pertsonalak babesteari buruzko araudia.

Legezko oinarri honek lehen aipatutako datuak erabiltzeko ere eragiten dio, honako hauetarako: ezbeharrak likidatzeko, arriskuen tarifakazioa eta hautespena ahalbidetuko dituen estatistika-lankidetzak aktuariala egiteko, teknika aseguratzaileko azterlanak egiteko, iruzurraren prebentzioa egiteko, segmentazioak egiteko, inkestak edo merkatu-azterketak edo bezeroak ez galtzeko eta/edo fidelizazio programak edo antzekoak egiteko (barne dago IMQk edo beste onuradun batek duten ahalmena inkestak edo merkatu-azterketak edo informazio- edo promozio-kanpainatik lortutako informazioa erabiltzeko edo, hala badagokio, inkestaren, merkatu azterketaren edo kanpaina informatikoaren edo sustapen-kanpainaren xede-publikoaren parametroak zehazteko).

Era berean, legezko oinarri honek datuak erabiltzeko eragiten die Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari egindako telefono bidezko harremanak grabatuz, zerbitzua kalitate hobearrekin ematen dela bermatzeko.

- (ii) Orobat, datuak erabiltzeko legezko oinarria da IMQren interes legitimoa IMQk eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako aseguru-produktu eta zerbitzuen berri emateko (www.imq.es webgunean uneoro identifikatuta daudenak), edozein komunikabide erabiliz (adib., posta, telefona, faxa, komunikabide elektronikoak, etab.)

Edonola ere, kontuan hartu behar duzu beti erabil daitekeela jakinarazpen komertzialak jasotzearen aurkako eskubidea (aurrerago deskribatzen den bezala).

Era berean, legezko oinarri honek babesten du IMQk aseguratuen eskura jartzen duen mediku-taldeko kideek zure datuen erabileran aplikazio informatikoak erabiltzea, informazio-sistematarako homogeneous direnak, eta horrela, erraztu eta hobetu egingo da interesatuaren datuen kudeaketa IMQk eskaintzen duen Koadro Medikoen barruan.

Interes legitimoan oinarritutako edozein tratamendu egiteko, IMQk datu pertsonalak, ohorea eta intimitate pertsonala nahiz familiarena babesteko duzun eskubidea errespetatu du, eta errespetu hori bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

IMQn uste dugu, bezero zaren aldetik, arrazoizko aukera duzula guk eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako produktu zein zerbitzuen berri izateko (betiere honako arlo hauei lotuta badaude: aseguruaren sektorea, osasun-asistentzia, asistentzia soziosanitarioa, lan arriskuen prebentzioa, osasuna eta ongizatea).

6) **Zure datu pertsonalen hartzaileak:**

IMQk, tratamenduaren arduraduna den aldetik, ez dizkio zure datu pertsonalak hirugarrenei lagako, ez badago legezko obligaziorik edo salbu eta lagapena beharrezkoa bada kontratu-harremana beteazteko.

Aurrekoaren kalterik gabe, kontratua eta lege aplikagarriak betez, IMQk kasuan kasu behar-beharrezko datuak lagako dizkie honako hauei: (i) kontratatutako Aseguru-polizarekin bat zerbitzuak ematen dituzten osasun arloko profesionalei; (ii) kontratatutako Aseguru-poliza zuzen betetzeko IMQrekin koaseguru, berraseguru edo lankidetzat harremanak dituzten entitateei; (iii) agintariei; (iv) banku edo finantza-entitateei; (v) epaile edo auzitegiei; eta (vi) tratamenduaren arduraduneei.

Halaber, zerbitzua behar bezala emateko, eta kontratuaren ondoriozko harremana kudeatzeko, gerta liteke tratamenduaren arduradunek eta/edo profesional espezializatuek datu pertsonalak erabili behar izatea.

Arduradun horietako batzuk, "hodei-konputazioa" zerbitzuen emaileak barne, Europar Batasunetik kanpo egon daitezke edo Europar Batasunetik kanpoko baliabideak izan ditzakete; beraz, babes-maila baliokidea ez duten lurraldeetan. Horrelako kasuetan, hornitzaileek legeria aplikagarrian jasotako bermeak dituzte.

7) **Hirugarrenengandik jasotako datuak:** : Polizarekin bat gerta liteke IMQk erabili behar izatea hirugarrenek jasotako bezeroaren edo aseguratuaren datuak, osasunari buruzkoak, genetikoak edo biometrikoak barne, osasun zerbitzuen emaileek jasoak kontratatutako Aseguru-polizarekin bat.

Horrelakoetan, IMQk beharrezko informazioa besterik ez die eskatuko osasun-zerbitzuen emaileei, hain zuzen ere, legezko obligazioak eta kontratatutako Aseguru-polizan ezarritakoa betetzeko behar den informazioa, eta datuen proportzionaltasun eta minimizazio printzipioak errespetatuko ditu.

8) **Datu pertsonalak gordetzeko epea:**

Kontratu-harremanak dirauen bitartean gordeko ditu IMQk zure datu pertsonalak. Osatu gabe dauden aseguru- eskabideak, gehienez, 6 hilabetez gordeko ditu IMQk, salbu eta eskabidean epe luzeagoa adosten bada, eskabide berriak direla eta, izapidetzeak birritan ez egiteko.

Behin kontratu-harremana bukatuta, IMQn zure datuak gordeko ditugu legeak ezarritako atxikitze epeetan edo IMQk erantzukizunak dituen epealdian, 10 urte, gehienetan. Epe horiek igarota, zure datuak suntsitu egingo dira, salbu eta datuok zeharo anonimizatu badira, araudiaren bat, estatistika edo ikerketa-helburuekin.

9) **Interesatuaren eskubideak:**

Interesatua bere datu pertsonalak erabili, zuzendu, ezabatu, mugatu eta aurkaratzeko eskubideen titularra da, baita horien eramangarritasunerako eskubidearena ere. Halaber, emandako baimena uneoro ken dezake interesatuak, eta horrek ez dio tratamenduaren zilegitasunari kalte egingo.

Tratamenduaren arduraduna den IMQk erabiltzen dituen datu pertsonal horiekiko eskubidea erabiltzeko, datuen titularrak honako kanal hauek erabil ditzake: i) aurrez aurre IMQren edozein bulegotan; (ii) postaz k/Máximo Aguirre, 18 bis, 48011 Bilbo, Bizkaia (bezeroarentzako arreta sailera zuzenduta); edo (iii) posta elektronikoz: imq@imq.es (atxiki behar duzu beti zure NANren kopia irakurgarria edo zure nortasuna ofizialki egiaztatzen duen beste agiri bat). Eskubideok erabiltzea doakoa da.

Tratamenduaren kontra eta agiri honetan adierazitako datuak lagatzearen kontra egonez gero, gauzatu gabe gera liteke Aseguratuen estaldura kontraktotasun horrek dirauen bitartean. Izan ere, kontra egoteak eragotzi diezaiokie IMQri prestazioak kalkulatzeko eta Aseguru Kontratuan ezarritako helburuak betetzeko eta araudi aplikagarriaren obligazioak betetzeko behar diren datuak izatea.

Era berean, uste baduzu IMQk ez dituela zure datu pertsonalak erabili araudi aplikagarriarekin bat, harremanetan jar zaitzake Datuak Babesteko ordezkararen: dpd@imq.es edo erreklamazioa egin Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es).

19. Artikulua

Erreklamazio-eskariak eta Kontrola Bezeroarentzako Arreta Saila

1. Aseguratzailerearen jardueraren kontrola Estatu espainolari dagokio eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren menpe dagoen Aseguru eta Pentsio-Fondoan Zuzendaritza Nagusia arduratzen da aipatu entitatearen kontrola egiteaz.

2. Hartzailak, Aseguratuak, Onuradunak, Hirugarren Kaltetuak edo horietako edozeinen eskubidedunek Aseguru Kontratuari buruzko edozein erreklamazio egin nahi badute, berau konpontzeko zuzendu beharko dira:

- a) Igualatorio Médico Quirúrgico, S.A. de Seguros y Reasegurosen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura, hauetako bide bat erabiliz:
 1. Aurrez aurre IMQren edozein bulegotan.
 2. IMQren gizarte helbidera bidalitako postaren bidez: Máximo Aguirre, 18-bis, Bilbo (Bizkaia), edo Gasteiz hiribidea, 39, 01008 Vitoria-Gasteiz (Araba), edo Euskadi Plaza, 1, 20002 Donostia (Gipuzkoa).
 3. Faxez 94 427 39 37 (Bizkaia), 945 14 47 65 (Araba) eta 943 32 78 93 (Gipuzkoa) zenbakietara.
 4. Posta elektronikoaren bidez imq@imq.es helbidera (Bizkaia), vitoriagasteiz@imq.es (Araba), edo donostia@imq.es (Gipuzkoa).

Baliabide informatiko, elektronikoen edo telematikoen bidez egindako aurkezpena baliogarria izango da betiere bere irakurmena, inprimatzea eta mantentzea baimentzen badu eta Araudian ezarritako baldintzak eta ezaugarriak betetzen baditu.

Aipatutako Sailak idatziz emango du aurkezten diren erreklamazioak jaso izanaren berri, eta arrazoizko idazkiaren bidez ebaztuko ditu indarreko araudiarekin bat, aurkezten direnetik hasi eta hilabete bateko (1) epean.

Sailak, pertsona fisiko edo juridiko guztiek zuzenean edo izendatutako ordezkari bidez egindako kexak eta erreklamazioak konponduko ditu, aipatutako kexa eta erreklamazioak bere aseguru jarduerekin zerikusia duten legez aitortutako interes eta eskubideei badagozkio, prozedura edozein dela eta, hala nola Kontratuak, gardentasuna eta bezeroaren babesaren araudia edo praktika eta erabilera ona, ekitate-printzipioa bereziki.

Ebazpenetan Kontratuen Baldintza Orokorretan, Partikularretan eta Berezetan ezarritako betebeharrak eta eskubideak hartuko dira kontuan; jarduera aseguratzailearen legeko araudia (Aseguru Kontratuari buruzko Legea, Aseguru Pribatuaren Ordenazio eta Ikuskapen Lege eta Araudiaren Testu Moldatua eta aplikagarria den gainerako araudia).

- b) Erreklamazioaren prozedura administratiboa Aseguru eta Pentsio-Fondoaren Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean ere hasi daiteke, paperezko euskarrian edo bide telematikoz <https://www.dgsfp.mineco.es/reclamaciones> webgunearen bitartez. Horretarako, erreklamazioa egiten duenak frogatu beharko du erreklamazioa Bezeroentzako Arreta Zerbitzuan egin zenetik hilabete (1) (erreklamazio gilea kontsumitzailea baldin bada) edo hilabete bi (2) (gainerako egoeretan) igaro direla eta ez dela erabakirik hartu, edo bere onarpena ukatua izan dela, edo eskaria ez dela aintzat hartu.
- c) Aurreko jarduerak baztertu gabe, edonola ere, erreklamazioa egiten duenak Epaitegi eta Epaimahai eskudunetara jo dezake (Aseguruaren Kontratutik eratorritako ekintzak ezagutzeko epaile eskuduna Aseguratuaren helbidekoa izanik).
- d) Halaber, aldeek euren desadostasunak bitartekariaren erabakipean jar ditzakete borondatez, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuan eta bere garapen arauetan ezarritako terminoetan. Edozein kasutan, aldeak tartekaritza sistemaren pean jartze hori borondatezkoa izango da eta idatziz beren beregi jarri behar da. Aurreikuspen horrek ez du, inolaz ere, bitartekariaren menpean alde aurretik jartzen denik esan nahi.
- e) Halaber, eta goiko atalean jarritakoari kalterik egin gabe, sortu diren edo sor daitezkeen zuzenbidearen arabera jarrera librekoak diren gai eztabaidagarriak ere jarri ahal izango dira tartekaritzaren menpean, Tartekaritza buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legean ezarritako terminoetan.
- f) Era berean, desadostasunak bitartekari baten esku ipini ahal izango dituzte, auzi zibil eta merkataritzakoetako bitartekaritza buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

20. Artikulua

Eskumena

Kontratu hau Espainiako eskumenaren menpe geratzen da, Aseguruaren Kontratutik eratorritako ekintzak ezagutzeko epaile eskuduna Aseguratuaren helbidekoa izango delarik.

21. Artikulua

Preskripzioa

Kontratu honetatik eratoritzen diren ekintzek **bost (5) urte** igaro ondoren preskribituko dute, egin zireneko datan zenbatzen hasita.

22. Artikulua

Jakinarazpenak

Aseguruaren Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguratzailari egindako jakinarazpenak Polizan agertzen den egoitza sozialera egingo dira.

Aseguruaren Hartzaileak Kontratuan bitarteko den Agente edo Aseguru-artekari bati egindako jakinarazpenek, Aseguratzailari zuzenean egindakoen ondorio berberak izango dituzte.

Aseguratzailak Aseguru Hartzaileari edo Aseguratuari egin beharreko jakinarazpenak posta bidez, Polizan jasotako helbidera, edo hala eskatuz gero, elektronikoki edo telematikoki bidaliko dira, edo eskuragarri jarriko dira.

Hala ere, Aseguratzailak Hartzailearen edo Aseguratuaren helbidera bidali ahal izango ditu jakinarazpenak, horrela egitea justifikatzen duten arrazoiak daudenean.

23. Artikulua

Urruneko kontratazioa

Urruneko kontratazioa egon dela ulertzen da urruneko komunikazio teknikaren bat erabili denean eskusiboki aseguru negoziatzeko eta sinatzeko, aseguratzaila (edo banatzailea) eta hartzailea batera egon gabe fisikoki. Komunikazio horretarako bitarteko telematikoak (posta elektronikoa, weba eta abar), elektronikoko, telefonikoak, faxa edo antzeko beste batzuk (esaterako: posta arrunta) erabil daitezke.

Aseguru urrutiko teknika baten bidez kontratatu bada, eta aseguruaren hartzailea merkataritza edo lan jarduerarekin lotutako asmorik gabeko pertsona fisikoa bada, hartzaileak arrazoirik azaldu gabe eta zigorrik jaso gabe deuseztatu ahal izango du kontratua, aseguruaren kontratua egin eta hamalau (14) egun naturaleko epean, estali beharreko ezbeharrak gertatu ez bada.

Hartzaileak aldebakarreko ahalmen hori erabil dezake Aseguratzailari idatzia bidalita Máximo Aguirre kalea, 18 bis, 48011 Bilbo (Bizkaia) helbidera, edo posta elektronikoz imq@imq.es helbidera.

Kontratuan atzera egiteko eskubidea erabiltzen duen aseguruaren hartzaileak aseguruaren kontratua indarrean egon den epeari dagokion polizaren zati proportzionala ordaindu beharko du. Prima ordainduta egonez gero, Aseguratzailak prima itzuliko dio hartzaileari hogeita hamar (30) egun naturaleko epean gehienez ere, kontratua indarrean egon den epeari dagokion zenbatekoa kenduta.

24. Artikulua

Kalte-ordaina kirurgia-operazioagatik

Aseguratutako zenbatekoaren gaineko ehunekoa (%)

Kirurgia Orokorra

1. Burua eta lepoa

Golo, enukleazioa	% 18
Golo, estrumektomia	% 25
Frenizektomia	% 6

2.- Abdomena

Abzesu intrakabitorioa	% 6
Uzki inguruko abzesua	% 4
Ondestearen anputazioa minbiziagatik, behin	% 45
Ondestearen anputazioa minbiziagatik, bi aldiz	% 60
Naturaz bestelako uzkia	% 18
Uzkiaren itxitura	% 15
Porto Cava anastomosisa	% 45
Apendizetomia	% 18
Heller kardioespasmoa eta antzerakoak	% 25
Kolektomia	% 40
Kolezistektomia	% 25
Kolezistostomia.....	% 18
Koledokotomia	% 25
Koledokuduodenostomia	% 40
Enteroanastomosisa	% 25
Hestegorria, erauzketa kartzinomagatik	% 60
Esplenektomia patologikoa eta traumatikoa.....	% 25
Ebentrazio abdominala	% 18
Uzkiko fisura	% 10
Gastrektomia partziala.....	% 35
Erabateko gastrektomia	% 45
Gastroenterostomia	% 20
Gastrostomia.....	% 18
Gastrorrafia (zulaketa akutua).....	% 18

Hemorroideak, erabateko sendaketa	% 12
Hernia arrunta, errezydibatua, iratoa, heste-erazketarekin edo gabe	% 18
Hernia bikoitza	% 21
Laparotomia abdominala	% 14
Heste-buxadura	% 30
Pankreaktektomia.....	% 50
Pankreatitis akutu hemorragikoa	% 25
Piloroπλασία	% 25
Ondesteko polipoa	% 6
Ondestearen prolapsoa	% 12
Gibekeko kiste hidatidikoa abdomenetik	% 25
Organo sendoen haustura	% 25
Errai hutsen haustura	% 21

3.- Gorputz-adarrak

Jarraian jasotako anputazioak:

Besoa, besaurrea edo eskua	% 15
Eskuko hatza lodia	% 10
Eskuko gainerako hatzak	% 8
Oineko behatzak.....	% 8
Izterra, hanka edo oina	% 15

4.- Bestelakoak

Abzesu hepaticoa.....	% 20
Antraxa klinikan anestesia orokorrarekin	% 10
Dibertikulu sakrokokzigeoa	% 12
Flemoi hedatsuak gorputz-adarretan	% 9
Gagliektomia estelarra edo torakolunbarra	% 25
Gongoilak, hustuketa erregionala	% 15
Mastektomia	% 15

Traumatologia

1.- Torax eta sorbalda

Klabikula, eskapula eta saihsak (odoltsua)	% 15
--	------

2.- Besoa

Ukondoa	% 8
Ukondoa (odoltsua)	% 16
Lepoa edo humeroaren diafisia	% 8
Lepoa edo humeroaren diafisia (odoltsua).....	% 16

3.- Besaurrea

Kubitu, erradio edo eskumuturra	% 8
---------------------------------------	-----

4.- Eskua

Metakarpok eta hatz-hezurak (odoltsua)	% 8
--	-----

5.- Bizkarrezurra

Orno-gorputzak:	
Desbiderapenik gabe	% 10
Desbiderapenarekin	% 18
Muineko lesioekin (odoltsua)	% 45

6.- Aldaka eta pelbisa

Pelbis-eraztuna:	
Atalen desbiderapenik gabe	% 10
Atalen desbiderapenarekin	% 25
Pelbis barruko kotilo lokadura.....	% 35
Aldaka, miaketa ebakiarekin	% 55

7.- Izterra

Izterrezurra	% 15
--------------------	------

8.- Hanka eta belauna

Maleoloak	% 8
Maleoloak (odoltsua)	% 12
Belaunezurra	% 6

9.- Oina

Orpo-hezurra, astragaloa.....	% 10
Orpo-hezurra, astragaloa (odoltsua)	% 21
Hatz-hezurrak, eskafoideak eta metatarsianoak	% 8

10.- Lokadurak

Akromio klabikularra (odoltsua)	% 15
Aldaka	% 21
Ukondoak	% 6
Eskapulo-humerala (odoltsua).....	% 25
Belauna	% 8
Tartsoko perone-tibia, astragaloa edo oina	% 8

11.- Operazioak eta ortopedia

Azetobuloplastia	% 45
Eskumuturreko artrodesia	% 25
Belauneko edo oineko artrodesia	% 15
Klabikula edo aldakako artoplastia	% 45
Sorbaldako edo ukondoko artoplastia	% 25
Eskumuturreko artoplastia	% 15
Hatzetako artoplastia	% 6
Belauneko edo orkatileko artoplastia	% 24
Belauneko kapsulotomia	% 12
Hatza mailuan, erauzketa	% 6
Ezproi kalkaneoa, erauzketa	% 8
Osteosintesi materiala ateratzea	% 6
Hallus valgus, ebakuntza zuzentzailea	% 12
Meniszektomia	% 15
Sorbaldaren edo humeroaren osteotomia ez birakaria	% 18

Eskumuturraren osteotomia zuzentzailea	% 10
Hankaren osteotomia	% 18
Dupuytren esku-ahurreko uzkurdua	% 21
Eskumuturreko sinobiektomia.....	% 8
Belauneko sinobiektomia.....	% 15
Tendoien jostura	% 15
Tenoplastia mentuekin.....	% 15
Tenotomia eta Akilesen luzapena	% 8
Tendoi-transplantazioak	% 15

Ginekologia eta Tokologia

1.- Ginekologia

Umetoki-lepoaren anputazioa.....	% 18
Aurreko kolporrafia, zustozelea	% 15
Kolporrafia bikoitza, aurrekoa eta atzekoa	% 21
Douglas irispideko kolpotomia	% 8
Erantsitako en eruzketa	% 25
Bartholin-en guriaren eruzketa.....	% 9
Fistula besiko-baginala.....	% 15
Fistula errektobaginala.....	% 15
Histeroktomia partziala	% 25
Erabateko histeroktomia	% 35
Miaketa-laparotomia	% 14
Umetokiko legratua biopsiagatik	% 6
Mastektomia besapeko hustuketarekin	% 25
Mastektomia arrunta	% 15
Umetoki-lepoko polipoak eta papilomak	% 6
Obulutegiko kistea	% 18
Baginako kistea.....	% 6
Bagina artifiziala	% 30
Bulbektomia arrunta	% 12
Bulbektomia adenektomiarekin	% 20

2.- Tokologia

Zesarea	% 35
---------------	------

Bihotzeko Kirurgia

Gorputzez kanpoko bihotzeko kirurgia	% 100
Taupada-markagailua:	
Barne-ezarpina	% 30
Kanpo-ezarpina eta berrezarpina	% 25
Ebakuntzak aortaren koarktazioagatik	% 90
Ebakuntzak Fallot-en tetralogiagatik	% 90
Ebakuntzak estenosi mitral-itxiagatik.....	% 75
Perikardiektomia perikarditisagatik.....	% 90

Kirurgia Torazikoa

Gorputz arrotza bronkioan	% 15
Biriketako dekortikazioa	% 70
Drainadura torazikoak, ziztadak izan ezik	% 15
Enukleazioa, kistektomia endotorazikoa	% 70
Exeresia, saihets-paretako tumoreak	% 35
Mediastinotomia endotorazikoa	% 70
Bronkio-fistularen kirurgia-konponketa	% 70
Birika-erazketak	% 70
Torazentesia	% 6
Toraskopia drainadurarekin.....	% 15
Torakostomia	% 35
Miaketa-torakotomia	% 35

Kirurgia Baskularra

Goiko kaba zainaren kirurgia	% 50
Hemorroideak	% 12
Goranzko izter-aortaren mentua	% 50
Mentu estra-anatomikoak, subklabia izan ezik	% 25
Loturak:	
Safena-arkua tronboflebitisagatik	% 15
Zain zulatzaile isolatuak	% 6
Birbaskularizazioak:	
Aneurisma hodi handietan.....	% 50
Arteria periferikoak.....	% 25
Arteria periferikoak enbolektomiarekin	% 21
Karotida komuna	% 50
Erraietakoa	% 50
Saihets baten erazketa	% 25
Arteria periferikoen haustura traumatikoa	% 10
Aldebarreko sefenektomia	% 15
Aldebiko sefenektomia	% 21
Sinpaktetomia lunbar eta torazikoa	% 21

Neurokirurgia

Aurrealboko abordatzea	% 50
Jarraian jasotako kirurgiak:	
Oinazearena, estereotaxiarekin ala gabe	% 45
Hidrozealia	% 60
Malformazioak	% 60
Nerbio kranial-mikroneurokirurgia	% 60
Garuneko konmozioa	% 10
Drainadura bentrikularra	% 12
Kranio-hausturak, orno-traumak	% 10

Laminektomia	% 50
Malformazioak:	
Kranio barneko baskularrak	% 70
Arteria-aneurismak	% 70
Neurolisiak.....	% 18
Kranio barneko prozesu hedakorrak	% 75
Sinpatektomia torazikoa	% 40
Orno-muinetako traumak	% 40
Trauma kranio-entzefalikoak zeinuekin	% 10
Orno-muinetako tumoreak (odoltsua)	% 60

Oftalmologia

Blefaroplastia handia	% 12
Katarata inplantea protesiarekin.....	% 21
Katarata.....	% 15
Ziklodialisia edo diatermia	% 10
Dakriostomia edo dakrioszitorrinostomia	% 15
Erretina-askatzea. Trat. osoa	% 21
Enukleazio edo ateratzea.....	% 10
Estrabismoa, Tratamendu osoa	% 15
Legrtange Elliot eskleroiridektomia.....	% 15
Glaukomaren aurkako iridektomia	% 10
Irido kapsulotomia	% 10
Kronlain orbitotomia	% 25
Betazalen ptosia	% 12
Keratoplastia zulatzailea. Tratamendu osoa	% 25
Keratoplastia ez-zulatzailea. Tratamendu osoa.....	% 21
Erabateko keratonomia. Tratamendu osoa	% 21
Sinblefaron-orbitaren berrezarpena	% 15
Optiko-ziliarraren erauzketa	% 10
Sinblefaron handia autoplastiarekin	% 10
Kornea-trasplantea	% 25
Tumoreak edo kisteak irisean	% 15
Atzeko bitrektomia pars planetik	% 35
Bitrektomia arrunta	% 20

Kirurgia Plastiko zuzentzailea

Eskugain edo esku-ahurraren zintzilikarioa distantzian	% 15
Farisgostoma baten itxitura	% 15
Eratzun-formako atxikidura gorputz-adarrak zuzentzeko	% 10
Orbain zuzenketa	% 10
Hatzaren uzkurdura zuzenketa zintzilikario bidez.....	% 10
Sudur-desbiderapena, zuzenketa estetikoa	% 15
Orbita eta mentu exanterazioa	% 10
Ginekomastia	% 10

Graneoplastia	% 10
Jarraian jasotako mentuak:	
Gorputz-adarrak, torax eta abdomena	% 18
Ultzerak	% 10
Betazalak	% 10
Masail erdia edo bekokia	% 10
Aurpegiaren erdia aurretik edo atzetik, libre	% 10
Larruazalarekin, gantzarekin, etab. betetzea	% 10
Larruazalekoa Scalp partzialarekin	% 6
Plastia ertainak	% 6
Aldebakarreko erbi-ezpaina	% 10
Aldebiko mamoplastia erredukzioa	% 15
Aldebakarreko mamoplastia erredukzioa	% 12
Zela moduko sudurra mentuarekin ala gabe	% 10
Polidaktilia	% 10
Aurpegiko paralisia	% 10
Belarri-hegala erabat berregitea	% 15
Begiaren zaku-hondoa berregitea	% 10
Goiko ezpaina erabat berregitea	% 15
Betazala erabat berregitea	% 8
Ezpainak partzialki berregitea	% 10
Betazala partzialki berregitea	% 10
Beheko masailezurraren erauzketa	% 10
Zintzilikario pilosoen transposizioa	% 10
Foku osteomielitikoaren tratamendua	% 10

Urologia

Zakilaren anputazioa	% 10
Harriak, goputz arrotzak zistozkopia bidez	% 8
Kastrazioa tumoreagatik	% 15
Aldebiko kastrazioa	% 12
Aldebakarreko kastrazioa	% 8
Zirkunzisiao fimosiagatik	% 4
Zistostomia	% 15
Erabateko zisto-prostatobesikulektomia	% 40
Kolpozistozelea	% 15
Maskuriko dibertikuluak	% 30
Erabateko zisto plastia	% 45
Epidodomektomia	% 15
Tumoreen endoskopia bidezko erauzketa	% 21
Flemoi urinosoa	% 12
Aldebiko hidrozelea	% 12
Aldebakarreko hidrozelea	% 8
Zakilaren zuzenketa/hipospadiak	% 10
Lunbotomia	% 15
Harriak ateratzeko endoskopia-maniobrak	% 12
Erabateko nefroureterektomia	% 40

Nefrektomia	% 40
Nefrostomia	% 15
Larruazalean zeharreko nefrostomia nefrolitotomia	% 25
Larruazaleko uretero-enterostomia ebakuntza	% 40
Ureterreko ebakuntzak eta uretero-errenoskopiak	% 18
Aldebakarreko eta aldebiko orkidopexia	% 21
Pieloplastiak	% 35
Pielotomia	% 30
Ureterreko eszisio prolapsoa	% 4
Prostatektomia epe batean	% 30
Giltzurruneko kistea	% 30
Uretran zeharreko prostataren erauzketa	% 30
Maskuriaren lepoaren erauzketa	% 25
Gernu-iheserako tratamendua	% 18
Ureterreko zisto neostomia	% 30
Ureterreko sigmoidestomia	% 30
Ureterolitotomia	% 30
Uretoplastiak, deribazioak barne	% 30
Uretrostomia	% 12
Barikozelea (aldebakarrekoa, aldebikoa)	% 10

Aurpegi-Masailezurreko kirurgia

Artoplastia	% 10
Ixitura konplexua, inguru-zintzilarioa	% 10
Lepoa, kiste brakialaren erauzketa	% 6
Talkan dagoen zuhurragina	% 4
Gorputz arrotz sakonen erauzketa	% 4
Lepoaren erabateko disezioa	% 40
Eszisio bermiloia	% 10
Masailezur azpiko guruinaren erauzketa	% 10
Zentimetroa baino handiagoak diren lesioen erauzketa	% 6
Tirogloso-hodiko kistearen erauzketa	% 6
Tumore txiki onbera edo gaiztoen erauzketa	% 6
Erauzketa seriatuak	% 6
Faringoplastiak	% 15
Fenestazioak, hortzak barne	% 4
Fistula, sudur-ahokoa edo aho-sinusala	% 15
Ahosabaiko fisura ez-oso	% 15
Masailalboaren haustura, erredukzio odoltsua	% 8
Goiko masailezurraren haustura	% 8
Barailezurraren haustura, erredukzioa eta immobilizazioa	% 8
Sudurreko hezur edo kartilagoen haustura	% 8
Bekoki-hezurraren haustura	% 8
Erabateko glosektomia	% 18
Erabateko gingiboplastia	% 10
Erabateko gingibektomia	% 6
Gingibektomia partziala	% 4

Hipertrofia maseteroa	% 4
Mukosa-mentua	% 6
Albeoloetako hezurren mentua	% 10
Maxilektomia partziala	% 12
Makroglosia, erredukzioa	% 10
Osteoerradionekrosia, hezurren erauzketa	% 10
Kokotseko osteotomiak	% 10
Aurpegiko paralisia	% 15
Erabateko parotidektomia	% 10
Barailezuraren prognatismoa	% 10
Erabateko protidektomia	% 12
Aldebiko belarri-hegalen plastia	% 6
Mukosen plastia	% 6
Kiste edo tumore onbera, muskuluen erauzketa	% 15
Barailezuraren erretrognatismoa	% 10
Mihipekoa, marsupializazioa	% 21
Azpiko masailektomia	% 12
Azpiko masailektomia eta erabateko erauzketa	% 21
Tumore gaiztoa, barailezuraren edo masailezuraren erauzketa	% 21
Barailezuraren edo masailezuraren bestibuloplastia	% 10



Bezzeroarentzako arreta
900 81 81 50

ARABA

Vitoria-Gasteiz

Gasteiz etorbidea, 39

BIZKAIA

Bilbo

Bulego zentrala

Máximo Aguirre kalea, 18 bis

IMQ Zorrotzaurre Klinika

Ballets Olaeta kalea, 4

Getxo

Gobela kalea, 1

GIPUZKOA

Donostia

Euskadi enparantza, 1